

PLAN ESTRATEGIKOA 2023-26

GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA, UPV/EHU





1. SARRERA

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (aurrerantzean, GIE) 2016ko urtarrilaren 5ean eratu zen, garai hartako bi ikastegi integratuta: Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa eta Eibarko Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola, bi-biak ibilbide luzekoak hezkuntza eta ikerketa alorrean. Integrazio prozesuak bi mugarri izan zituen: 2016ko abenduan, lehenengo Ikastegiko Batzarra aukeratu zen; 2017ko otsailean, lehenengo zuzendaritza talde bateratua. Orduz geroztik, Eskola konprometituta dago kalitatezko kudeaketarekin eta etengabeko hobekuntzarekin.

Dokumentu honek azaltzen du GIEk konpromiso hori sendotzeko ibilbidean egin duen bigarren plan estrategikoa. Gogoeta prozesu baten ondoren sortu da. Prozesu hainbat lantalde eratu dira barne-intereseko taldeen iritzia jasotzeko, bai eta enpresa kolaboratzaileek osatutako foku talde bat ere kanpo-intereseko talde gisa. Zentroko Zuzendaritza Taldeak gidatu du prozesua, Kalitate Batzordearen laguntzarekin.

Dokumentuan jaso dira gogoeta estrategikoko prozesuan definitutako helburu estrategikoak, bai eta helburu horiek betetzeko proposatzen diren ekintzak ere.

2. XEDEA, BALIOAK ETA IKUSPEGIA

UPV/EHUren Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola unibertsitate-zentroa da. Bere Xedea da hezkuntza eta ikerketa burutzea industria eta eraikuntza ingeniaritzen alorrean, bai eta jakintza sortzea, garatzea eta hedatzea ere, gizartearen zerbitzura. Agente aktibo bat da, bere inguruko egitura ekonomikoa eta soziala sendotzen laguntzen duena, kalitatezko kudeaketaren eta gizarte eta ingurumen erantzukizunaren irizpideetan oinarrituta.

Erakunde orok ditu bere izaera islatzen duten eta gainerakoengandik bereizten dituen berezko ezaugarriak. Balioak erakundearen berezko printzipioak eta sinesmenak dira, bere portaeraren eta erabakien oinarrian daudenak, eta haiek baldintzatzen dituztenak, haiengan eraginez. GIEren **Balioak** dira:

- Profesionaltasuna, integritatea eta erantzukizun partekatua.
- Eraginkortasuna baliabideak erabiltzean.
- Malgutasuna eta aldaketetara egokitzeko gaitasuna.
- Sentsibiltatea eta konpromisoa gizartearen premiekin eta ingurumenarekin.
- Konpromisoa gizarte eta kultur ingurunearekin eta euskararen erabilera bultzatzearekin.
- Etengabeko hobekuntzarako bokazioa.

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak etengabeko hobekuntza-ahalegina egiten du honako **Ikuspegi**-ildo hauetan aurrera egiteko:

- Gizarteak ospe handiko ikastegizat hartzea, bere irakaskuntza eskaintzaren eta ikerketaren kalitateagatik.
- Ikasleek erreferentziako zentro gisa baloratzea, jaso duten prestakuntzagatik, trebetasunak eta gaitasunak sustatzen dituen eta berrikuntzaren, gizarte erantzukizunaren, ahaleginaren eta integritatearen kultura transmititzen duena.
- Erakundeek, teknologia zentroek eta industria eta eraikuntza ingeniartzaren arloko enpresek irakaskuntza alorreko erreferentzia ikastegizat hartzea, lankidetzaren eta ezagutzaren transferentzia ere bultzatzen dituen, beraien garapenari lagunduz.
- Lehentasuna ematea pertsonen, eskolako kolektibo guztien ilusioa eta motibazioa indartuko dituen proiektu komun baten partaidea izan daitezen, eskolako kide izatearen sentimendua garatze aldera.

3. ESTRATEGIA

GEEK datozen urteetarako definitutako estrategia lau Ardatz estrategikoren inguruan egituratzen da, hainbat helburu estrategiko eta ekintzei egitura ematen diotenak:

- 1. ardatza. Unibertsitate prestakuntza.
- 2. ardatza. Ikerketa eta transferentzia.
- 3. ardatza. Pertsonak.
- 4. ardatza. Kudeaketa arduratsua

1. ARDATZA. UNIBERTSITATE PRESTAKUNTZA

Helburu Estrategikoak	Ekintzak
1.1. HE. Irakaskuntza eskaintza indartzea	1.1.1. EE. Eskolaren master eskaintza sendotzea
	1.1.2. EE. Graduen eskaintza sare sozioekonomikoaren beharretara egokitzen den aztertzea
	1.1.3. EE. Ikastegiaren tituluren batean ibilbide duala eskaintzeko aukera aztertzea
1.2. HE. Ikastegiaren tituluak indartzea	1.2.1. EE. Koordinazio horizontala eta bertikala sendotzea, ikasleen parte hartzea sustatuta
	1.2.2. EE. Hautazkoei buruz ikasleei emandako informazioa sendotzea
	1.2.3. EE. Prestakuntza jarduera osagarrien eskaintza zabaltzea; bereziki, laneratzea errazten duten eta garapen jasangarriarekiko konpromisoa indartzen duten jarduerak.
1.3. HE. Ikasleak erakartzeko jarduerak indartzea	1.3.1. EE. Bigarren Hezkuntzako orientatzaileen sarearekiko eta LH ikastetxeekiko hartu-emana indartzea
	1.3.2. EE. Ikasleak eta irakasle-ikertzaileak inplikatzeko ikastetxeetara egiten diren bisitetan
	1.3.3. EE. Ikasleak erakartzean interesatuta dauden enpresa kolaboratzaileak inplikatzeko
	1.3.4. EE. Genero berdintasuneko politikak bultzatzea, ingeniariarekiko interesa piztuz nesken eta gazteen artean
	1.3.5. EE. Ikastegiaren graduondoko eskaintzaren zabalkundea hobetzea ikasleen artean
1.4. HE. Lanbidearen errealitatearekiko lotura indartzea tituluetan	1.4.1. EE. Enpresa eta erakundeekiko elkarlana zabaltzea, bultzada emateko enpresetan eginiko praktikei, GRAL/MALei eta doktorego tesiei
	1.4.2. EE. Alor bakoitzeko informatika tresna profesionalen erabilera sustatzea
	1.4.3. EE. Obra eta enpresetara eginiko bisitak bultzatzea
1.5. HE. Tituluen nazioartekotzea bultzatzea	1.5.1. EE. Ikastegiaren Nazioarteko Titulu Bikoitzen eskaintza bultzatzea
	1.5.2. EE. Unibertsitate kolaboratzaileen sarea indartzea, ikasleen eta langileen trukerako

2. ARDATZA. IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

Helburu Estrategikoak	Ekintzak
2.1. HE. Enpresa kolaboratzaileen sarea sendotzea	2.1.1. EE. Unibertsitate-enpresa-gizarte gelen jarduerak indartzea eta zabaltzea
2.2. HE. Zentroaren ikerketa eta transferentzia jarduerak ikusaraztea	2.2.1. EE. Sare sozialak hobeto erabiltzea, ikerketa eta transferentzia jarduerak ikusarazteko
	2.2.2. EE. Sinergiak bultzatzea zentroko ikertzaileen eta ikertaldeen artean
2.3. HE. Ikerketa jarduerak laguntzea	2.3.1. EE. Ikerketa jarduera berrietan erabil litezkeen ikastegiaren espazioak aztertzea
	2.3.2. EE. Laborategietako segurtasuna hobetzeko mekanismoak indartzea

3. ARDATZA. PERTSONAK

Helburu Estrategikoak	Ekintzak
3.1. HE. Komunikazioa hobetzea	3.1.1. EE. Komunikazio Plana egitea eta ezartzea
	3.1.2. EE. Ikasleen informazioa biltzea titulazio bakoitzeko talde fokalen bidez
3.2. HE. Harrera hobetzea	3.2.1. EE. Ikasleen harrera eta tutorizazio planak sendotzea
	3.2.2. EE. TEKAZEL eta AZP berriaren harrera indartzea
3.3. HE. Pertsonen aitortza eta integrazioa	3.3.1. EE. Prozedura bat sortzea sistematikoki aitortzeko ziurtagirien bidez irakasle-ikertzaile, TEKAZEL eta ikasleen parte hartzea ikastegiaren jardueretan

4. ARDATZA. KUDEAKETA ARDURATSUA

Helburu Estrategikoak	Ekintzak
4.1. HE. Ikastegiaren eta haren guneen kudeaketa hobetzea	4.1.1. EE. Kudeaketa jardunbide egokien trukea bultzatzea unibertsitatearen beste ikastegi eta zerbitzuekin
	4.1.2. EE. Ikastegiaren azpiegituren eta instalazioen erabilera aztertzea, egungo beharrei erantzuteko
	4.1.3. EE. Ikastegiaren Autobabes Plana indartzea
4.2. HE. Ingurumen kudeaketa sustatzea	4.2.1. EE. Ingurumen hobekuntzako taldeek proposatutako jarduerak bultzatzea
4.3. HE. Euskara indartzea	4.3.1. EE. Euskararen erabilera indartzea ikastegian
	4.3.2. EE. Bikain ziurtagiria mantentzea